

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU

2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Babes-agindua genero-indarkerian: gaur egungo sistema judizialak biktimak babesten ditu?

Egilea

Naia Gambra Garcia

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
10. Desberdintasunak murriztea

Laburpena

Genero-indarkeria den gaitz sozial unibertsalaren aurka borrokatzeko, biktimen babeserako mekanismo juridikoak sortuz joan dira, besteak beste, aztergai izango dugun babes-agindua. Babes-agindua sistema juridiko-penalak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko jasotzen duen tresna berezia dugu. Hala ere, tresna juridiko honen eraginkortasuna kolokan jarri da, tresna honen gabeziak direla eta, bere funtzio nagusia, biktimak babestea, betetzetik urrun egon daitekeelakoan. Hortaz, lan honek babes-agindua zertan datzan azaltzeaz gain, izapidetza prozeduran eta edukian dauden gabeziak eta akatsak identifikatzen ditu eta horrekin batera, babes-aginduen ukapen kopuru altuak atzean dituen arrazoiak eta arazoak aztertzen ditu.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Lan honek sistema judizialak genero-indarkeria jasaten duten biktimei ematen dien babesaren gabeziak aztertzen ditu, horren aurrean dauden erronkak eta konponbideak proposatzera ausartuz (5. ODS).